

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

ARABAKO GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINITZA  
OROKORRAREN PROBINTZIako ZUZENDARITZA

**Ebazpena, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzarena, non, prozedura irekiaren bidez, bere jabetzako higiezinetakoa bigarren enkante publikoa iragartzen den**

Gizarteratze, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioak baimena eman dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari ondoren zehazten den higiezinakoa enkante publikoan besterentzeko:

Hiri-finka: Samaniego kaleko 8. zenbakiko 5. solairuko ezkerreko atean dagoen etxebizitza, Vitoria-Gasteizen (Araba), 112,08 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria duena. Vitoria-Gasteizko 3. Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, 4399 liburukian, 654. liburuan, 139. folioan, 33625 zenbakiko finkan, 1. inskripzioan.

Katastroko erreferentzia: 595906170000030009BO.

Kargak eta zergak: Jabetza Erregistroan jasota daudenak. Ez du karga propiorik. Hala ere, bere jatorriagatik, honako hauek ditu: parte hartzen duen finkaren lehenengo inskripzioan agertzen diren erkidego-araubidearen baldintzei eragiten die, 135. folioan, Gasteizko 408. liburukian.

Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren kalifikazioa: energia-kontsumoa (kWh/m<sup>2</sup>/urte): 141,74 D. CO<sub>2</sub> isuriak (kgCO<sub>2</sub>/m<sup>2</sup>/urte): 28,43 D.

Finkaren tasa ehun eta hirurogeita hamasei mila bostehun eta hogeita bi eurokoa da (176.522,00 euro), eta zenbateko hori izango da lizitazioaren gutxieneko tasa.

Lizitazio-tasaren ehuneko 5eko bermea: zortzi mila zortziehun eta hogeita sei eta hamar zentimo (8.826,10 euro).

Enkantea 2021eko otsailaren 23an izango da, 10:00etan, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzaren Batzar-gelan, Wellingtongo Dukearen kaleko 31. zenbakian, Vitoria-Gasteizen (01010).

Enkantea Baldintza-agirian ezarritako administrazio-baldintzei jarraituz arautuko da. Interesdunek eskura dezakete Baldintza-agiria Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzan, Wellingtongo Dukearen kaleko 31. zenbakian, Vitoria-Gasteizen (01010) eta Gizarte Segurantzaren web orrialdean [www.seg-social.es](http://www.seg-social.es).

Halaber, interesdunek 2021ko otsailaren 12aren 14:00 orduetara arte proposamenak aurkez ditzakete gutun-azal itxian, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzaren Erregistro Nagusian.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 30ean

*Probintziako zuzendaria*  
AMAIA PALACIOS RUIZ DE AGUIRRE